

AMA BIRGINAREN  
SORTZE CHIT GARBI

ETA

MAIXHAREN CUTSURIC GABECO ALABALEX

CONGREGACIOA.

Billera santu onetacoac  
berari eguiten diozoaten bisitataraco  
Liburuchoa.



TOLOSAN:

Andrés Gurruchaga-ren moldiz legotian  
1907-garren urtean.

OBISPADO DE VITORIA.—Gobierno eclesiástico. Damos nuestro permiso para la impresión y publicación del librito titulado *« Ama Birginaren sortze chit garbi als maixharen cutsuric gabeco alabalen Congregaciox: Billera santu onetacoac berari eguiten diozoaten bisitataraco Liburuchoa »* mediante á que no se contiene en él cosa alguna contra la fé católica y sana moral.

Dios guarde á V. muchos años. Vitoria 7 de Octubre de 1906.—Pablo de Yurre, gobernador eclesiástico.—Sr. D. Pedro Gurruchaga.—Tolosa.

*Liburu an, beru moldiz legotian ducarera da.*


baten prestera, ondo bicitzea dala. ¿Eta norc ez du icasten, munduan gauden bitartean gure griña citalen, gure animaren etsai cinetzuec diran oen contra beti guerran bici bear degala? eta etsai oen artean portitzena, gogorrena, eta guizonen hiotzac gueyen menderatzen ditacena, garbitasuneezco lore eder au loitneraci nai digna dala? Beraz gure anima errucarria, inguratzen duten irriscu, perill eta lazoetan erori gabe gordetzeco, eta ichas aserretuec irentsi nai luquean ontzichoa portu segurura becela, eriotz on batera eramateco, escu indartsu eta guiarri abill baten bearrean arquitzeada. Guiarri abil au da Ama Birgiña, eta escu indartsu au heraren balimentu paregabecoa; eta Ama mailati oen biotza gure alde jarrieracico duen limurcairie seguruea, berari *sortze chit garbiaren* icnequico debocio biotz biotzecoa izatea.

Debocio au cristian errietan zabaltzera, eta nola eguin eracustera zucentzen da liburucho au, eta esqueintzen zaye mundu zabal eta garbitasuna galaracitzeco irriscu bezetan sartzera dijoacen doncellachoi, jayotzatic eriotzaraño daucaten dembora laburrean, aurreratu dezaten

confesoreac ezaguturic, gauz ura Jaungoicoagandic retorquions zala; ontzat eman cion, erregutuaz, lau-bide ari bertatic asiera eman ceyola, Ama Birgiñari añ atseguitzezo onra eguiteco. Doncella elzan zabartu, eta andican egun guchira, bere quidaco zazpi lagun arturic, jarri ciran asteoro egunean batec bisita chudaca eguitera, baña artaraco baño leu, doncella gueyago bilduric, oetaco bacoitzac asco izandu zuen illean beñ here bisita eguita, egunoroco batena osatze-co; eta icusiric, egunetic egunera lagunac queituz cijascela, pensatu zuten guciaquin ogneita amaticaco sallac jartzea, lagun bat izan cediñ illaren egun bacoitzaraco, eta lagun-sallari eman cioten *coroaren* icena.

1850.<sup>oo</sup> Ilbeltzean Barcelonaco Obispo-ordainitza eguiten zuen Apsix Jaunac outzat eman zuen *oro* edo lagun-sallen jartzea, baita billera santu onetaco charnel eta liburuchoac moldizquidatzeco baimena ere. Urrengo Marchosaren azque-neraco bost lagun sall eta erdi edo Coro osatu ciran, eta eman citzaizcan bacoitzari bere charnel-liburuchoac, eta ordutandic urian eta campo-errietan aguertu

car zabaldu dan debozio santu an, bada zabaldu da berez becela, guizonen laguntza chit guchirequiñ, beragatic esan guenezaque lan au gucia ez guizonena, ezpada Ama Birgiñarena dala, eta billera santu onttaco lan eta debozioac leyalqui eguitetic prochu aundisc eta ondore zorionecoac eracarrico dirala.



## AMA BIRGIÑAREN

SORTZE CHIT GARBICO

### BILLERA SANTUAN DAUDEN

DONOELLAI.

Gure Ama maite Birgiña chit santac deituac cerate, alde guciatic craso eta guerrarie biciena eguiten zayon garbitasunezco birtute ederra indartu eta sendotzera. Oroitu zaitexte, Jaungoicoac eguiñ gaituela garbiac izateco San Paulo dion becela; eta ala, zuec artu dezaquezuten lan-biderie ederren, eta gueroenean prochu eta onratic aundiena lecarquizutena dala, eguitca lurrean garbitasunaren bidez, ceruan aingueruac eguiten duten antzeco

teari lagunduaz zuen indarrac bateratzea, izango dezute bideric seguruen eta egoquiena. Onetara beartzen zaituzte ceron buruai ecarri bear diozuten estimacioac zuen onoreac, zuen biotz gaitzgabeac, eta zuen fedeac eta onetara zuecudu bear dituzte zueu pauso, lan eta eguiñ al guciac, mundu onetan bicitza santu garbi eta birtatezcoa eguiteco, eta guero ceruan, garbitasunezco coroz zuen buruac ornituric, Ama Birgiñarequiñ, Aingueru eta Santuacquiñ Jaungoicoaren arpegui miragarria icusiaz beti betico doatsuac izateco. Ala izan dedilla.

**DONCELLAC AMA BIRGIÑARI**  
erantzuten dio:

Ama, oná zure alaba.  
Ama, oná zure alaba.  
Ama, oná zure alaba.

3.<sup>ena</sup> Billera santutic lagun bat nola nai dala, ateratzen danean, parte emango zayo cargua duenari, aren utsunea beste batequiñ ordaintzeco coro edo sall bacoitza beti oso ogucita amaica lagunequiñ egon dediñ.

4.<sup>ena</sup> Mariaren alaba guciac iduqui bear dute beren liburuchoa, andican guia ditecen beren Ama maiteari eguiten diozaten bisitetan.

5.<sup>ena</sup> Zazpi urtetie amaicarioco alabachoac eguiñ dezateque bisita laburragoa: onetaraco asco izango dute *Iru Ave-Maria* errezatuta guero esatea iru bider: *Ama, oná zure alaba.* ;O cembat balioco duen aur garbi eta gaitz gabeco espaiñ actatic ateratzen dan Ave Maria batec.

sona gazteac beren etorquizon oneraco daucaten eguiñquizunic aundiena. Escatu ere bear du billera santu onetaco *coro* edo lagun sallac ugaritzeco, peccatarien onbiurreraco, eta elit berecero oraingo demboretan inoiz baño lotsa guchiagorequiñ eguiten diran araguizeco peccatuac oso sutna daucaten Jaungoicoaren aserre bidezcoa gozatzeco. Eta azquenic erregutuco du premi esturen batean arqui litzquean billera santu onetaco lagunaegatic, octatic ill diranagatic, eta guciáz gañ gure Españiaco paque eta zoriontasunagatic, eta gure Erligio Santua gueyago eta gueyago zabaldu eta onratuagoa izateagatic.

4.<sup>ena</sup> Egunoro errezatuco ditu iru Ave Maria eta iru Gloria Ama Birgiñaren onran; baño dala debocioz, edo beste billera santuren

ibilli eta dembora igarotzea, izango litzaque gauza desegoqui bat, Mariaren alaba eguiacotzat bere burua daucana lotsatu bear duena.

7.<sup>ena</sup> Artu bear du asmo sendo bat, maiz herrituaz, mingaña beti garbi gordetzeco.

8.<sup>ena</sup> Inola ere ez da egongo aditzen itzcuntza loiric, edo ala-coen antzecoric, contuz alde eguiñaz garbitasuna loitu, edo cuntsutu dezatequean lagun, billera eta bide guciatic.

9.<sup>ena</sup> Itz loi edo garbitasunaren contrao esaera parragarriren bat aditzen badu, bercala biotzbiotzetie esango du: Jesus Maria eta José, edo Ave Maria Purisima, edo Alabatua izan dedilla Jaungoicoa, edo guis onetaco beste itz on batzuec.

*Elizac aguintzen duen moduan jarria dagoen Mariaren sortze chit*

taco eguzquia sartu arte, irabaci ditequeana, confesatu, comulgatu eta Eleiza bisitatzearequiñ.

4.<sup>ena</sup> Zazpi urteco eta beste zazpi berrogeico barcamenac, Obispo Jaunac señalatzen dituen urteco lan pest-egunetan; ceñac diran Ama Birgiñaren Jayotzacoa, Presentacioco, Eleiz-sartze eta Cerura aletatua izan zanecoa, arestian esan diran gauzac eguiñaz.

5.<sup>ena</sup> Iruroguei eguneco barcamenac, billera santu onetacoac beren pecatuen damu eguiazcoarequiñ eguiten duten edoceñ obra onagatic.

6.<sup>ena</sup> Indulgentzi osoa, illean bi bider norberac aututzen dituen egunetan confesatu eta comulgatu, eta edoceñ Eleiza bisitatzearequiñ, erreztuaz bertan Aita Santuaren intencioraco. Eta gauza

Jaungoicoaren Ama, Bicitza gurca, Poz gurca, eta Jaungoicoaz campora gure esperanza guztizcoa. Nie, zure serbitzari izatea mereci ezpadet ere, uste gucia zure erruquitasuncan ipiñiric, eta Zu serbitzeco desco aundi batez iracequiric, berecitzan zaitut gaurco-egunean ceruco Aingueru eta Santu gucien aurean nere jabe osotzat, nere Ama adoragarritzat eta nere bitartecotzat, eta bertatic erabaquitzen det, Zu, nere bicitzaco egun eta une gucietan leyalquiro maitatu eta serbitzea, seculan ez esan, ez eguiñ, ez eta nai ere zuri zor dizugun errespeto eta onraren contraco gauzaric, oro-bat ez ontzat ematea beñere nere mendeco iñore Zu naigabetzeco esan edo eguiñ lezaqueanic, eta, nere icena Zure Sortze chit garbico alabaen billerari eman

unc artan arc biciroago bear didazu lagundu, zure debotoacquiñ eguiñ oi dezun beccela, gorde nazazu nere tentacioetan; ayca e-zazu nigandic Satanas; datoce la nere alde Aingueru Santnac; piscortu itzazu nere biotzean Fede, Esperanza eta Caridadea, eta indartu nazazu birtute oen lanac eguiteco; eta indazu pacientzi umil bat nere gogoa zure Semearen borondatera macurtu, jarri, eta beti erabiltzeo.

Jesus, Maria eta José, nere biotz-animac ematen dizquitutet.

Jesus, José eta Maria, ampara ezazute nere anima azqueneco agonian.

Jesus, Maria eta José, paquezo descantsua nere animac izan dezala. eguizute. Amen.

## LENDABICICO ESCAERA.

### Garbitasuna iristeco.

Nere Ama maitea, ar zazn zure mantupcan nere gaztetasuna, ni eta nere lagun guztia gorde gaitzatu etsayen lazoetatic; gure anima gañoac cupida gabe ondatu nai lituzqueten araco etsai gogor ayetatic, mundu galduaren losenchia eta engañoetatic, infernuco ispirituaren tentacioetatic, eta aragui argalaren grina biurri eta gurarietatic. Erregutu zayoza beti zure Seme Jaungoicoari, nere eta lagun gucien alde, bada bertatic itz ematen dizugu zure alaba eguiazcoac izango guerala, eta diguzun amorioari, amorioarequiñ erantzungo diogula. Irichi zagu zu beragandic añ bearrac ditugun umiltasun eta garbitasuna, eta

det, mundu onetaco nere bicitza laburrean Bera onguien serbitu eta amatu dezaquedan bici-estadua; au izan dedilla bada, zure alaba eguiazcoa eguiñ, eta betico salbacioa iristeco gayean paraco nauena.

*Aita gursa, Abe Maria, etc.*

### IRUGARREN ESCAERA.

**Billera Santu onetaco lagun-sallac ugaritzeco.**

Gueitu itzatzu Zure sortze chit garbi eta mancharen cutsuric gabea onratu eta alabatzen sayatsen diran coro edo sall oyec, parte izan dezaten zu ornitzen zaituzten ceruco argui eta garbitasun miragarrian; izan bitez Jesu-Cristoren esposac ugarituco dituen birtutezco iturri bat becela, Birgiñ-

aizpa maite tentaciozco arietan nasturic, betico galerara daraman bidean dabilzanac; bial zayezu beren biotzetara argui-errañu bat; aguert-eracico diena beren bici-modu galdu eta ibillera oquerrac eracarri bear dien patu triste eta negargarría; eman zayezu aiiñ bearrean dauden indarra beren galerazco bicitza ezaguturic, bereala utzi eta biurtu ditecen menenetan beren Jaungoicoarengana, peccaturaco bideric iñori gueyago eman gabe salba ditzaten beren animac, zure Seme gueiz maitearen odol preciotsuarequiñ erosiac, eta ceruco Aingueruac poz contentuz bete ditecen icustean berriz ere Jesusen escolaco icasle eta zure alaba maiteai dagocaten eran bici dirala.

*Aita gurea, Abe Maria, etc.*



cio galgarri onen sua, ez quiscali-  
 co gaituen garraequin Sodomata-  
 rrac quiscali cituen becela; ezpa-  
 da gucioc beragana biurtuco gai-  
 tuen Jaungoicoaren amoriozco bi-  
 gnin eta gozoarequin; ez Noeren  
 demboracoac ito cituen becela,  
 gucioc ito eta ondatu gaituen u-  
 galdearequin, ezpada beraren  
 graciaco ur garbi eta sendatza-  
 lleacquin pizcortu eta alaitu gai-  
 tzan berac gure grinia eragabeac  
 cci eta menderatzera, eta zure  
 Sortze chit garbi orretan aimb-  
 terano distiatzen duten birtuteen  
 jarraile eguiazcoac izatera.

*Aita gurea, Abe Maria, etc.*

**ORACIOA.**

· ¡O Birgiña chit garbi eta biotz  
 oso beraa! icusten gaituzn cembat  
 irriscu eta gal-bideen artean ar-

Jaungoicoa: erruqui zaitex gu-  
 zaz.

Espiritu Santu Jaungoicoa: erru-  
 qui zaitex guzaz.

Trinidad Santu Jaungoico bat  
 cerana: erruqui zaitex guzaz.

Santa Maria.

Jaungoicoaren Ama Santa.

Birginen Birgiña Santa.

Cristoren Ama.

Jaincozco graciaren Ama.

Ama chit garbia.

Ama chit casta.

Birgiña ceralarie Ama.

Ama tacha gabea.

Ama sortzetie garbia.

Ama maitagarria.

Ama uiragarria.

Eguillearen Ama.

Salbatzallearen Ama.

Birgiña chit beguiratua.

Birgiña beneragarria.

Birgiña alabagarria.

ERREGUTU EZAZU GEGATIG.

Apostoluen Erreguiña.  
 Martirien Erreguiña.  
 Confesoreen Erreguiña.  
 Birginen Erreguiña.  
 Santu gucien Erreguiña.  
 Jatorrizco pecatuaren mancha-  
 gabe sortutaco Erreguiña.  
 Errosario chit Santuaren E-  
 rreguiña.

ERREGUI EZAZU GUGATIE

℣. Munduco pecatuac quen-  
tzen dituzun Jaincoaren Bildotsa.

℞. Barca zaguzu, Janna.

℣. Munduco pecatuac quen-  
tzen dituzun Jaincoaren Bildotsa.

℞. Adigaitzatzu, Janna.

℣. Munduco pecatuac quen-  
tzen dituzun Jaincoaren Bildotsa.

℞. Erruqui zaitetz guzaz.

### ANTIFONA.

¡Cein ederra ceran nere maitea,  
oso garbia, mancharic gabea! zure

### ERREGUA.

Zure amparuzco babescan jar-  
tzen guera, Jaungoicoaren Ama  
Santa, ez utzi, arren entzun gabe  
gure premietan zucentzen dizqui-  
tzugun erreguac; czpada libra  
gaitzatzu perill gucietatic, ó Bir-  
giña bedeincatu eta gloriaz betea.

Agur, Erreguiña, erruquimen-  
tuzco Ama, gure bicitza, gozota-  
sun eta esperanza; Agur Zure de-  
yez gande Eva-ren ume deserri-  
tuoc, zugana suspirioz gaude, ne-  
garrez, malcozco ballera onetan.  
Ea, bada, gure bitarteco cerana,  
itzuli itzatzu gugana zure begui  
urricaltsu orieo, eta deserri onen  
ondorean eracutsi zaguzu Jesus,  
zure sabeleco frutu bedeincatua.  
¡O biotz beraa! ¡O urricaltsua! ¡O  
Maria Birgiña gozoa!

daucat jarria nere uste osoa, ez  
naiz egundaño icusico lotsatua.

Agur Maria chit garbia.

Pecatugabe sortua.

Bedeincatua eta alabatua izan  
dedilla Ama Birgiñaren sortze  
chit santu eta mancharen cuntsuric  
gabea.

*Alta Santa Pio seigarrenac eman  
citur eun eguneco barcamen edo in-  
dolgentziac Bedeincatua eta alabatua as-  
ten dan auruzco oracio an esaten dute-  
nentzat; besté eun egunecoac Zure am-  
paruzco babesean etc. eta Agur Erregui-  
ña esateagatic, eta Pio zazpigarrenac  
irureunecoac Letania errezatzeagatic.*

*Birgiña eta Jaungoicoaren Ama bucué-  
raeo erreguigulic daude emanac mi-  
lla eguneco indulgentziac.*

Amparu billa gatoz  
Zure itzalera  
Esanaz, mancha gabe  
Sortua izan cera:  
Jaunac icusiricua  
Zure garbiera,  
Pozez dizu ere esaten  
Gutziz cera ederra.

Atzeguiñ artzen dezu  
Anima onetan,  
Gorde bada gu garbi  
Gorpntz animetan;  
Erori ez galtecen  
Pecatu saretan  
Etsayac prestaturic  
Beti dauzeantetan.

Centzua argui zadazu  
;Ama erruquitzuena!  
Estadu bat artzeco

— 46 —

6

Pecatu loyae dute  
Jauna aserratzen  
Gu galtzeco espadezu  
Bera zuc gozatzen,  
Ona zure alabae  
Guera bateratzen  
Ta graci au dizugu  
Umilqui escatzen.

— 7 —

¡O erreguina aundia  
Cera-lurrecoa,  
Iguzu, arren, birtute  
Castidadecoa.  
Lore ederra eta  
Paregabecoa  
Guizona duena eguiten  
Aingueru antzecoa.

— 8 —

Milla esquer ó Maria  
Dizqitzugu ematen  
Zure mantu eder pean

